

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

MENDAROKO UDALA

Mendaroko bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak hobetzeko obretarako diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzen dituen Ordenantza behin betiko onartzea.

Mendaroko Udaltzatzen, 2021eko maiatzaren 27ko ohiko bilkuran, hasierako onarpena eman zion Mendaroko bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak hobetzeko obretarako diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzen dituen ordenantzari.

Oinarri horiek jendaurrean jarri ziren 30 egunez, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 2021eko ekainaren 10ean (108. zk.) argitaratutako iragarkiaren bidez, eta alegaziorik edo erreklamaziorik aurkeztu ez zenez, oinarri horiek behin betiko onartu ziren.

Ondorioz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikulua iragarki honen eranskin gisa argitaratu da oinarrien testu osoa.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio-bidean, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Mendaro, 2021eko uztailaren 27a.—Iñaki Arregi Uria, alkatea.
(5214)

Mendaroko bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak hobetzeko obretarako diru-laguntzen oinarri arautzaileak onartzen dituen Ordenantza.

1. artikulua. Oinarrien xedea.

Ordenantza honen xedea da Mendaroko Udalak Mendaroko udalerriko bizitegi-eraikinen eta etxebizitzetan hobekuntzak sustatzeko ematen dituen zuzeneko emakida-prozeduraren bidez eman beharreko diru-laguntzen emakidari aplikatu beharreko oinarri arautzaileak ezartzea. Diruz lagundu daitezkeen jarduketak honako hauek dira:

1. lerroa: Elementu komunei buruzko jarduerak:

a) Irisgarritasuna eraikinetan: igogailuak, maldak eta plataformak instalatzea eta egokitzea.

b) Fatxadak eraberritzea: eraikin bateko fatxada edo fatxadak konpondu edo berritu edo fatxadak lehengoratzeko obrak, fatxaden bateratasuna apurtzeke eta egiturazko elementuei ezertan eragiteke. Diruz lagunduko dira baita eraikuntza-konponbideen aldaketa dakarten berriztatze-obrak, fatxadaren jatorrizko baldintzak hobetzen dituztenak. Obra hauek ere sartzen dira:

c) Eraikinen ikuskaritza teknikoak eskatutako lanak, ikuskaritzak eskatzen dituen lanak berehala, presa handiz edo presaz egin behar izanez gero, eta betiere teknikari kualifikatu batek sinatzen baldin badu.

d) Efizientzia energetikoaren hobekuntza: Eraikinaren ingurutzatze termikoa hobetzeko jarduketak. Berokuntzarako edo hoz-

AYUNTAMIENTO DE MENDARO

Aprobación definitiva de la Ordenanza por la que se aprueban las bases reguladoras de la concesión de subvenciones para las obras de mejora de los edificios residenciales y viviendas de Mendaro.

El Pleno del Ayuntamiento de Mendaro, en sesión ordinaria de fecha 27 de mayo 2021, aprobó inicialmente la Ordenanza por la que se aprueban las bases reguladoras de la concesión de subvenciones para las obras de mejora de los edificios residenciales y viviendas de Mendaro.

Dichas Bases quedaron sometidas a información pública durante 30 días mediante anuncio publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 10 de junio de 2021 (n.º 108), y al no haber sido presentada alegación o reclamación alguna, las citadas Bases quedan definitivamente aprobadas.

En consecuencia, de acuerdo con lo dispuesto en el art. 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se publica como anexo al presente anuncio el texto completo de las Bases.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo en vía administrativa, podrá interponerse en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente a la publicación, recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Mendaro, a 27 de julio de 2021.—El alcalde, Iñaki Arregi Uria.
(5214)

Ordenanza por la que se aprueban las bases reguladoras de la concesión de subvenciones para las obras de mejora de los edificios residenciales y viviendas de Mendaro.

Artículo 1. Objeto de las bases.

Es objeto de la presente Ordenanza establecer las bases reguladoras de aplicación a la concesión de las subvenciones a otorgar mediante el procedimiento de concesión directa en régimen de estimación individualizada que el Ayuntamiento de Mendaro conceda para fomentar las obras de mejora de los edificios residenciales y viviendas del municipio de Mendaro, siendo las actuaciones subvencionables las siguientes:

Línea 1: Actuaciones relativas a elementos comunes:

a) Accesibilidad a los edificios: instalación y adecuación de ascensores, rampas y plataformas en inmuebles.

b) Restauración de fachadas: la restauración de la fachada o fachadas de un edificio a sus condiciones o estado original, sin que se produzca la alteración de la unidad compositiva, ni se incida en elementos estructurales. Serán subvencionables las obras de rehabilitación que supongan una modificación de las soluciones constructivas que a su vez deriven en una mejora respecto a las condiciones originales de la fachada.

c) Obras requeridas por la inspección técnica de edificios: siempre que las obras requeridas sean inmediatas, muy urgentes o urgentes, firmado por personal técnico cualificado.

d) Mejora de la eficiencia energética: Mejora de la envolvente térmica. Se considerarán actuaciones subvencionables de

ketarako energia eskaria jaisteko jarduketa oro hartuko da eraiki-naren inguratzaile termikoa hobetzeko dirulaguntza jaso dezakeen jarduketatzat, fatxadan, estalkian edo inguratzaileko beste edozein paramentutan eta bizitegi eraikin kolektiboetan, familia bakarreko edo bi familiako etxebizitza bakartuetan edo ilaran lerrokatutako etxebizitzetan egiten bada.

e) Autokontsumorako energia elektriko fotovoltaikoa sortzeko instalazioak, bizitegi-eraikinetan: Autokontsumorako energia elektriko fotovoltaikoa sortzeko eguzki panel fotovoltaikoen instalazio berrietan egiten diren inbertsioak (familia bakarreko edo bi familiako etxebizitzetan zein etxebizitza eraikin kolektiboetan egiten direnak) hartuko dira diruz laguntzeko modukotzat.

2. lerroa: Elementu pribatiboei buruzko jarduerak:

a) Etxebizitza egokitzea mugikortasun mugatua edo zentzumenezko desgaitasuna duten pertsonentzat edo 65 urtetik gorakoentzat.

b) Kanpo arotzeria ordezkatzeta.

3. lerroa: Alokairuaren sustapena:

a) Etxebizitza hutsen alokairua sustatzea, Alokabide (ASAP) programan egindako bitartekaritza lanaren bidez merkatura atera ahal izateko. Etxebizitza hutsak egokitzeko lanak, gerora alokairuan jarri ahal izateko.

1 eta 2 lerroetan xedatutako laguntzak bateragarriak izango dira. Aldiz, 3 atalean xedatutako laguntzak, 1 atalekoekin bateragarriak izango dira, baina 2 atalekoekin bateraezinak.

Diru-laguntzaren kopurua zehazteko xedearekin, diruz laguntzeko moduko gastuak izango dira lanak egikaritzean izandako gastuak eta ordainsari teknikoek sortutako gastuak.

2. artikulua. *Onuradunek diru-laguntza eskuratzeko bete behar dituzten baldintzak.*

1. Diru-laguntzen onuradunak izan daitezke diru-laguntza ildo bakoitzarentzat jarraian zehaztutakoak, baldin eta diruz laguntzeko moduko jardunen ordainketan parte hartzen badute, baldin eta DLoren 13. artikuluko 2. eta 3. atalek ezartzen dituzten debeku horietako baten eraginpean ez badaude:

a) Elementu komunetan egindako lanetan (1 Lerroa), zuzeneko onuradunak izango dira, hain justu, legez eraturako Jabekideen Erkidegoak edo eraikinaren jabeak, familia bakarreko edo bi familiako etxebizitzetan kasuan. Honako atal honetan xedatutako laguntzen izapideak, bestalde, Jabekideen Erkidegoaren ordezkariak egin beharko ditu; betiere, Jabetza Horizontalararen legean xedatutako modu eta baldintzetan.

b) Elementu pribatiboetan egindako lanetan (2 Lerroa), jabeak, gozatzaileak edo errentariak diren eskatzaileak soilik izan daitezke onuradun; edo bestela, lanak egin beharreko etxe bizitzari begira bestelako tituluren bat duten pertsonak. Nolanahi ere, pertsona fisikoak izan beharko dute, eta etxe bizitza horrek euren bizitegi eta ohiko egoitza izan beharko du. Egoera hori, hain zuzen, udal eroldaren bitartez egiaztatu ahal izango da. Azkenik, pertsona horien urteko diru sarrera haztatuak ezingo du, inondik inora urteko 35.000,00 eurotik gorakoa izan elkarbizitza-unitatea kide bakarrekoa bada, edo 65.000,00 eurotik gorakoa izan elkarbizitza-unitatea bi kidekoa edo gehiagokoa bada.

c) Etxebizitza hutsen alokairua sustatzeko lanetan (3 Lerroa), onuraduna izango da lanak egin beharreko etxe bizitzaren jabea, gozameduna, pertsona fisikoa.

Laguntza horien onuradunek konpromisoa hartu beharko dute zaharberitutako etxebizitza Alokabide (ASAP) programaren bitartez alokairuan jartzeko. Diru-laguntza jaso tzen duen etxebizitzak gutxienez 5 urte eman beharko ditu Alokabide programan. Ezingo da laguntza hau jaso baldin eta 3 etxebizitzako edo hortik gorako ondarea badu eta/edo urteko 35.000,00 euro gordinetik

mejora de la envolvente térmica del edificio, las actuaciones cuyo objeto sea reducir su demanda energética de calefacción o refrigeración, mediante actuaciones en fachada, cubierta o cualquier paramento de dicha envolvente, llevadas a cabo en edificios de viviendas de tipología residencial colectiva, viviendas unifamiliares o bifamiliares aisladas o agrupadas en fila.

e) Instalaciones de generación de energía eléctrica fotovoltaica para autoconsumo en edificios residenciales: Tendrán la consideración de actuaciones subvencionables las inversiones en nuevas instalaciones de paneles solares fotovoltaicos para la generación de energía eléctrica destinada a autoconsumo tanto en viviendas unifamiliares/bifamiliares como en edificios de vivienda colectiva.

Línea 2: Actuaciones relativas a elementos privativos:

a) Adecuación de la vivienda para personas con discapacidad de movilidad reducida o sensorial o mayores de 65 años.

b) La sustitución de carpintería exterior.

Línea 3: Fomento de alquiler:

a) Fomento de alquiler de viviendas vacías para su salida al mercado mediante la intermediación del programa Alokabide (ASAP). Obras que permitan la adecuación de viviendas vacías para su posterior alquiler.

Las ayudas contempladas en las Líneas 1 y 2 serán compatibles entre sí. Las ayudas contempladas en el apartado 3 son compatibles con las del apartado 1, y son incompatibles con las del apartado 2.

Será gasto subvencionable al objeto de determinar el importe de la subvención, los gastos de ejecución de las obras y los de honorarios técnicos.

Artículo 2. *Requisitos que deberán reunir las personas beneficiarias para la obtención de la subvención.*

1. Podrán ser personas o comunidades de propietarios/as beneficiarias de las subvenciones los que se indican, seguidamente, para cada línea subvencional, que participen en el pago de las actuaciones subvencionables, siempre y cuando no se vean afectados por ninguna de las prohibiciones de los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la LGS:

a) En las obras de elementos comunes (Línea 1) serán beneficiarias directas las comunidades de propietarios/as legalmente constituidos o las personas titulares de las edificaciones, en el caso de las viviendas unifamiliares y bifamiliares. La tramitación de las ayudas contempladas en el presente apartado deberá efectuarse por quien represente a la comunidad de Propietarios/as en los términos establecidos en la ley sobre Propiedad Horizontal.

b) En las obras de elementos privativos (Línea 2) serán personas beneficiarias las solicitantes que sean propietarias, usufructuarias o arrendatarias o que ostenten cualquier otro título de disfrute sobre la vivienda objeto de las obras, en todo caso, persona física, que constituya su residencia y domicilio habitual, circunstancia acreditada a través del padrón municipal, y cuyos ingresos anuales ponderados no superen en ningún caso, los 35.000,00 euros brutos anuales en el caso de unidades de convivencia integradas por un solo miembro o los 65.000,00 euros brutos anuales si son dos o más miembros.

c) En las obras para fomento del alquiler de viviendas vacías (Línea 3) será persona beneficiaria la propietaria, usufructuaria, persona física, de la vivienda objeto de las obras.

Las personas beneficiarias de estas ayudas deberán comprometerse a destinar la vivienda rehabilitada, al alquiler a través del Programa Alokabide (ASAP). La vivienda objeto de la subvención, deberá permanecer durante un plazo mínimo de 5 años en el Programa Alokabide. No se podrá optar a esta ayuda si se tiene un patrimonio de 3 viviendas o superior, y/o ingresos

gorako diru-sarrerak baditu kide bakar batek osatutako bizikidetz-unitateen kasuan, edo urteko 65.000,00 euro gordinak baditu bi kide edo gehiago badira.

2. Ezingo zaie diru-laguntzarik eman Mendaroko Udalarekin zorrak izateagatik presazko bidetik kobratzeko prozeduraren baten barnean daudenei, harik eta zor horiek egiazki aseta, kitatuta edo beteta izan arte, non eta ez dauden atzeratuta, zati-katuta edo horien egikaritzea etenda.

3. Deialdi honetan zehaztutako laguntzak jaso nahi dituzten eraikinetako titularrek EAT (eraikinetako azterketa teknikoa) eginda eta aurkeztuta eduki behar dute laguntza hau jasotzeko eskaera egin aurretik, eraikinaren antzinatasuna dela eta nahitaezkoa bada. EAT aurkeztu beharko da Udalaren sarrera-erregistroan. Aurkezten denetik dirulaguntza eskaera egin arte da goen gehieneko epea 10 urtekoa da.

Diru-laguntza ukatu egingo da EITen adierazitako akatsak ezarritako epeetan zuzendu ez badira eta zuzenketa hori eskatzen den diru-laguntzaren xede diren obra horietan sartzen ez bada.

4. Era berean, ondorengo baldintzak bete beharko dira:

– Eraikinak etxebizitzarako azalera erabilgarri osoaren bi heren izatea gutxienez, zenbaketa horretatik kanpo geratzen da behoko solairuaren azalera.

– Eraikinak hamar urtetik gorako antzinatasuna izatea.

– Eraikina hirigintzaren aldetik egokia izatea, udal-lizentzia lortzeko mugarik gabe.

– Eraikina aurri-egoeran, zati batean eraitsita edo barruan hustuta ez egotea.

– Obrarako udal-lizentzia izatea, hala dagokionean.

Fatxadak zaharberritzeko diru-laguntzetan, gainera, baldintza hauek bete beharko dira:

– Fatxadako elementuei tratamendu bateratua emango zaie (leioak, balkoiak, itxurak...). Ez da diru-laguntza emango aipatutako elementuren bat fatxadako beste elementuez bestelako kolore edo osakerakoa ez bada, salbu eta lizentzia eskatzeko aurkeztutako proiektuak elementu horiek ordeztzea eta fatxadaren baldintza estetikoak uniforme bihurtzea aurreikusten badu.

– Ez du urratuko eraikinen fatxaden eta estalkien baldintza estetikoak arautzen dituen udal-ordenantza.

– Ez du baimenik gabeko instalaziorik izango, hala nola antenak, errotuluak, gas-galdarak edo bestelakoak, ez fatxadan, ez barrandaren gaineko balkoietan. Teknikari informatzaileek eta Lurralde Batzordeak aztertuko dute ea elementu diskordanteak lizentziarik duen ala ez, eta ea legeztatu daitekeen ala ez.

– Ez dira diruz lagunduko aireztapen-patioetako edo eraikinen barruko beste patio batzuetako fatxadetako obrak.

5. DLO-ren 23.2 artikuluko e) hizkiak dioena betez, deialdi bakoitzak zehaztuko du baldintzak zer modutan egiaztatuko diren; hori dela eta, eskaerekin batera ekarri behar diren dokumentuak eta argibideak ere deialdiak berak adieraziko ditu.

6. Diru-laguntza bat eskatu eta onartu ondoren, ezingo da diruz lagundutako obra bererako beste diru-laguntzarik eskatu, hura emateko ebazpenaren datatik hamar urte igaro arte.

3. artikulua. *Eskaerak aurkezteko modua eta epea.*

Diru-laguntza eskaerak izenpetuko dituztenak interesatuak beraiek izango dira, edo, beraiek izan ezean, zuzenbidean balio duen

superiores a 35.000,00 euros brutos anuales en el caso de unidades de convivencia integradas por un solo miembro o los 65.000,00 euros brutos anuales si son dos o más miembros.

2. No podrán concederse subvenciones a quienes se hallen incurso en procedimientos de cobro por vía de apremio por deudas contraídas con el Ayuntamiento de Mendaro, hasta que dichas deudas sean efectivamente satisfechas y saldadas o cumplidas, salvo que las mismas se encuentren aplazadas, fraccionadas o cuya ejecución estuviese suspendida.

3. Los edificios cuyos titulares pretendan acogerse a las subvenciones objeto de la presente convocatoria, deberán haber realizado y presentado la ITE (inspección técnica del edificio), con anterioridad a la formalización de la petición de la correspondiente subvención, siempre que sea obligatorio por la antigüedad del edificio. La ITE deberá haber sido presentada en el Registro de Entrada municipal, en un plazo máximo de 10 años anterior a la fecha de presentación de la solicitud de subvención.

Se denegará la subvención cuando no se hayan subsanado en los plazos fijados las deficiencias detectadas en la ITE, y no se incluya dicha subsanación entre las obras para las que se solicita la subvención.

4. Asimismo, se deberán reunir los siguientes requisitos:

– Que el edificio disponga de un mínimo de dos terceras partes de superficie útil total destinada a vivienda, quedando excluida de este cómputo la superficie de la planta baja.

– Que el edificio tenga una antigüedad superior a diez años.

– Que el edificio se encuentre adecuado urbanísticamente y sin limitaciones para la obtención de licencia municipal.

– Que el edificio no se encuentre en estado de ruina, demolido parcialmente o vaciado en su interior.

– Disponer de la correspondiente licencia municipal para la obra, cuando proceda.

En las subvenciones destinadas a la restauración de fachadas se deberán cumplir, además, las siguientes condiciones:

– Se dispondrá de un tratamiento unitario de los elementos de fachada (ventanas, balcones, cierres...). No se concederá la subvención en caso de que alguno de los elementos citados sea de color o composición diferente a los demás de la fachada, a no ser que el proyecto presentado para la petición de licencia prevea la sustitución de estos y la uniformización de las condiciones estéticas de la fachada.

– No contravendrá la ordenanza municipal reguladora de las condiciones estéticas de las fachadas y cubiertas de las edificaciones.

– No presentará instalaciones no autorizadas como antenas, rótulos, calderas de gas u otras, ni en la fachada ni en los balcones por encima de la barandilla. Por los/as técnicos/as informantes y la Comisión de Territorio se analizará si el elemento discordante cuenta o no con licencia, y si es susceptible o no de legalización.

– No se subvencionarán las obras en fachadas de patios de ventilación u otros patios interiores de las edificaciones.

5. Las correspondientes convocatorias concretarán la forma de acreditar los requisitos, en cumplimiento del artículo 23.2, letra e) de la LGS, a cuyo efecto indicarán los documentos e informaciones que han de acompañarse a las solicitudes.

6. Una vez solicitada y concedida una subvención, no se podrá volver a solicitar nueva subvención por la misma obra subvencionada hasta transcurridos diez años de la fecha de Resolución de concesión de aquélla.

Artículo 3. Forma y plazo en que deben presentarse las solicitudes.

Las solicitudes de subvenciones se suscribirán por las personas interesadas directamente o las que acrediten su representa-

beste edozein baliabide erabilita, haien ordezkapena egiaztatzen duten pertsonak. Deialdi bakoitzean ezarriko dira eskaerak egiteko ereduak.

Eskaerak aurkezteko epea deialdiaren oinarriak kasu bakoitzerako ezartzen duena izango da.

4. artikulua. Diru-laguntza emateko prozedura.

Diru-laguntza emateko prozedura, banakako ebaluazio araubideari jarraikiz, zuzenean ematekoa izango da.

Prozedurari ofizios ekingo zaio dagokion deialdiaren bidez; deialdiak DLOren 23.2 artikulua ezarritako edukia izango du, aldez aurretik lege horren 34.1 artikulua aipatzen duen gastu onarpenaren kalte gabe.

Diru-laguntzak emateko araubide honetan, baimendutako kreditua agortu ondoren erantzun gabeko eskabideak badaude, eta organo eskudunak hala erabakitzen badu, diru-laguntzak egotzen zaizkion aurrekontu-partida handitu ahal izango da ebatzi gabeko diru-laguntzei erantzuteko.

Edozelan ere, deialdi batean krediturik ez egoteagatik ebatzi ezin izan diren diru-laguntza eskabideak hurrengo deialdian sar daitezke; kasu horretan lehentasuna edukiko lukete tramitatze-rakoan.

5. artikulua. Diru-laguntzak emateko irizpideak.

Diru-laguntzak emateko prozedura honetan, espedienteak aurkeztu ahala tramitatu eta ebatzen joango dira (deialdian aurreikusitako epearen barruan) horretarako aurrekontu-kreditua dagoen bitartean; eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituzten eskatzaileei emango zaie diru-laguntza eta bakoitzari emango zaion zenbatekoa oinarri hauen 7. artikulua aipatzen dituen irizpideak aplikatuz ateratzen dena izango da.

6. artikulua. Deitutako diru-laguntzen gehieneko zenbatekoa edo zenbateko zenbatetsia.

Kasuan kasuko deialdian, iragarritako diru-laguntzen zenbatekoa adieraziko da, betiere diru-laguntzak egotzi behar zaizkien kredituen muga kontuan hartuta. Kreditu horiek gehieneko zenbatekoak izango dira.

DLOren 56. artikulua babesean espediente aldez aurretik izapidetuz gero, deialdian agertzen den gehieneko zenbatekoa zenbatetsia izango da, eta berariaz adierazi beharko da diru-laguntzak emateko kreditu egokia eta nahikoa egon behar dela diru-laguntza emateko ebazpena ematen den unean.

7. artikulua. Diru-laguntzaren banakako zenbatekoa edo hura zehazteko irizpideak.

Deitutako zenbatekoaren barruan eskatzaile bakoitzari eman dakiokkeen diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa deialdi bakoitzean ezarritakoa izango da, eta ezin izango du inoiz ere gainditu hautatutako jardueraren, proiektuaren edo programaren kostua.

8. artikulua. Diru-laguntza emateko prozedura antolatze, bideratzeko eta ebazteko organo eskudunak.

Diru-laguntza antolatu, bideratu eta ebazteko organo eskudunak Mendaroko Udalaren diru-laguntzak emateari buruzko araudian aurreikusitakoak izango dira.

9. artikulua. Ebazpena jakinarazteko edukia eta epea.

Ebazpenak, oinarri arautzaileak eta deialdiaren baldintzak betetzen direla arrazoitzeko, diru-laguntzaren onuraduna eta zenbatekoa adierazi beharko ditu.

Prozedura ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, diru-laguntza eskatzen den egunetik zenbatzen hasita. DLOren 25.5 artikulua araber, gehieneko epea

ción por cualquier medio válido en derecho. En las correspondientes convocatorias se establecerán los modelos pertinentes de solicitud.

El plazo de presentación de solicitudes será el que, en cada caso, se establezca en las bases de la convocatoria.

Artículo 4. Procedimiento de concesión.

El procedimiento de concesión de la subvención será el de concesión directa con régimen de evaluación individualizada.

El procedimiento se iniciará de oficio mediante la correspondiente convocatoria que tendrá el contenido establecido en el artículo 23.2 LGS, sin perjuicio de la previa aprobación del gasto a que se refiere el artículo 34.1 de la ley.

En este régimen de concesión de subvenciones, si una vez agotado el crédito autorizado existen solicitudes sin atender, y en el caso de que así se acuerde por el órgano competente, se podrá ampliar la partida presupuestaria a la que están imputadas las subvenciones para atender las no resueltas.

De todas formas, las solicitudes de subvención que no hayan podido ser resueltas en una convocatoria por inexistencia de crédito, podrán trasladarse a la siguiente, gozando de prioridad en su tramitación.

Artículo 5. Criterios de otorgamiento de las subvenciones.

En este procedimiento de concesión de subvenciones, los expedientes serán tramitados y resueltos conforme se vayan presentando (dentro del plazo previsto en la convocatoria) y en tanto se disponga de crédito presupuestario para ello, otorgándose la subvención a las personas solicitantes que cumplan los requisitos para su concesión y por los importes resultantes de la aplicación de los criterios señalados en el artículo 7 de estas bases.

Artículo 6. Cuantía máxima o estimada de las subvenciones convocadas.

En las respectivas convocatorias se indicará la cuantía de las subvenciones convocadas, siempre teniendo en cuenta el límite de los créditos a los que han de imputarse las subvenciones, que tendrán el carácter de cuantía máxima.

En el caso de la tramitación anticipada del expediente al amparo del artículo 56 del RLGs, la cuantía total máxima que figure en la convocatoria tendrá carácter estimado debiendo hacerse constar expresamente en la misma que la concesión de las subvenciones queda condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en el momento de la resolución de concesión.

Artículo 7. Cuantía individualizada de la subvención o criterios para su determinación.

El importe máximo de la subvención que puede otorgarse a cada solicitante, dentro de la cuantía convocada, será el que se establece en cada convocatoria y nunca podrá superar el costo de la actividad, proyecto o programa seleccionado.

Artículo 8. Órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución del procedimiento de concesión de la subvención.

Los órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución de la subvención son los que se establecen en la Normativa sobre concesión de Subvenciones del Ayuntamiento de Mendaro.

Artículo 9. Contenido y plazo en que será notificada la resolución.

La resolución, que hará referencia a efectos de motivación al cumplimiento de las bases reguladoras y de las condiciones de la convocatoria, deberá expresar la persona beneficiaria a la que se otorga la subvención y su cuantía.

El plazo máximo para la resolución y notificación del procedimiento será de seis meses desde la fecha de solicitud de la subvención. De acuerdo con el artículo 25.5 LGS, el vencimiento del

igaro eta ebazpena jakinarazi ez bada, interesdunei zilegi zaie diru-laguntza emateko eskaera administrazio-isiltasunez ezetsitzat jotzea.

10. artikulua. *Emandako diru-laguntzen publizitatea.*

Emandako diru-laguntzen publizitatea udaletxeko iragarki-oholean egingo da, hiru hilabete natural bakoitzaren hurrengo hila-betean, aldi horretan emandako diru-laguntza guztiak barne, eta honako datu hauek jasoko ditu: deialdiaren datuak, programa eta zer aurrekontu-kredituri egozten zaizkion, onuraduna, emandako zenbatekoa eta diru-laguntzaren helburua edo helburuak. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN iragarki-taulan argitaratzeko agintzen duen ebazpenaren laburpena argitaratu ondoren emango zaie hasiera argitalpeni.

11. artikulua. *Onuradunak emandako diru-laguntzaren zabal-kundeak.*

Diru-laguntzen izaera berezia dela eta –dagoeneko gauzatuta dauden jardueretarako ematen direnak–, onuradunak ez du diru-laguntzaren publizitatea egin beharko.

12. artikulua. *Diruz lagun daitezkeen gastuak.*

DLOren 31. artikuluko aurreikuspenen babesean, diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira dagozkien deialdietan zehatztasun-adierazitakoak.

13. artikulua. *Justifikatzeko epea.*

Egindako jardueri ematen zaien diru-laguntza denez, diruz lagun daitezkeen jarduera bete dela eta funtsak aplikatu direla justifikatzeko, diru-laguntzaren eskabidearekin batera aurkeztu behar da dagokion deialdian ezartzen den dokumentazioa.

Ezinbestekoa izango da hartzekodunei egindako gastua ordaindu zaiela egiaztatzea.

14. artikulua. *Egin beharreko ordainketak.*

Justifikazioa aurkeztea eta DLOren 84. artikuluan ezarritakoaren arabera ados dagoela egiaztatzea ezinbesteko baldintza izango da diru-laguntza eman ahal izateko eta onuradunari betebeharra aitortu eta ordaintzeko.

15. artikulua. *Bateragarritasuna edo bateragarritasun eza helburu berbererako emandako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio-tik edo erakunde publikoetatik zein pribatuetatik etorri, erakunde nazionaletatik, Europako Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik etorri.*

Diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu berbererako emandako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio-tik edo erakunde publikoetatik zein pribatuetatik etorri, erakunde nazionaletatik, Europako Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik etorri, baldin eta duen kostutik gorakoak ez badira, eta beste diru-laguntza horien araudiak horren inguruan ezar dezakeenaren kaltetan gabe.

Oinarri hauen arabera emandako diru-laguntzekin bateragarria den diru-laguntza jaso dezakeen onuradunak, modu frogagarrian adierazi beharko dio diru-laguntza hau eman dion organoari.

16. artikulua. *Diru-laguntzak ematerakoan ezarritako baldintzetan egon daitezkeen ez betetzeak mailakatzeko irizpideak, horrelakoetan onuradunak azkenean jasoko lukeen zenbatekoa zehaztu ahal izateko, edo hala balitz kasua, itzuli beharko lukeen zenbatekoa zehazteko.*

Diru-laguntza kobratu ondoren, Administrazioak zerbitzuen aldetik egiaztapen bat edo finantza-kontrol bat egin eta egindako gastu guztiak edo gastuen zati bat ez dela ordaindu agerian gertatuko balitz, hartzekodunen aldetik galdagarriak diren gastuak,

plazo máximo sin haberse notificado la resolución legítima a las personas interesadas para entender desestimada por silencio administrativo la solicitud de concesión de la subvención.

Artículo 10. *Publicidad de las subvenciones concedidas.*

La publicidad de las subvenciones concedidas se realizará en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento, durante el mes siguiente a cada trimestre natural incluyendo todas las subvenciones concedidas durante dicho periodo y contendrá datos de la convocatoria, el programa y crédito presupuestario al que se imputen, persona beneficiaria, cantidad concedida y finalidad o finalidades de la subvención. Se dará inicio a las publicaciones una vez publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el extracto de la resolución por la que se ordena la publicación en el Tablón de Anuncios.

Artículo 11. *Difusión de la subvención concedida por la persona beneficiaria.*

Dado el especial carácter de éstas las subvenciones –que se otorgan a actividades ya ejecutadas–, no se exigirá la publicidad de la subvención por parte de la persona beneficiaria.

Artículo 12. *Gastos subvencionables.*

Al amparo de las previsiones del artículo 31 LGS se considerarán gastos subvencionables los estrictamente expresados en las correspondientes convocatorias.

Artículo 13. *Plazo de justificación.*

Al tratarse de una subvención que se otorga a actuaciones ya realizadas, la justificación del cumplimiento de la actividad subvencionable y de la aplicación de los fondos se realizará junto con la solicitud de la subvención, mediante la presentación de la documentación que se establezca en la correspondiente convocatoria.

Será requisito necesario acreditar el pago a los acreedores por razón del gasto realizado.

Artículo 14. *Pagos a realizar.*

La presentación de la justificación y su comprobación de conformidad en los términos establecidos en el artículo 84 del RLGS, será condición indispensable para que pueda procederse a la concesión de la subvención y al reconocimiento de la obligación a favor de la persona beneficiaria y a su pago.

Artículo 15. *Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.*

Las subvenciones serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales siempre que no se rebase el costo de la misma, sin perjuicio de lo que al respecto pudiera establecer la normativa reguladora de las otras subvenciones concurrentes.

La persona beneficiaria que obtuviere una subvención compatible con las otorgadas al amparo de estas bases deberá comunicarlo de modo fehaciente al órgano concedente.

Artículo 16. *Criterios de graduación de los posibles incumplimientos de condiciones impuestas con motivo de la concesión de las subvenciones a efectos de determinar la cantidad que finalmente haya de percibir la persona beneficiaria o, en su caso, el importe a reintegrar, y deberán responder al principio de proporcionalidad.*

Si en la realización de una comprobación o control financiero por los servicios de la Administración se pusiera de manifiesto la falta de pago de todos o parte de los gastos realizados, después de cobrada la subvención, siendo exigibles por los respectivos

dirua itzul-tzeko agindua emango da egokitasunaren printzipioa erabilita; hartara, ordaindu gabe geratu diren gastuen proportzio berean hartuko da itzulgarritzat emandako diru-laguntza.

17. artikulua. Administrazioko arau-haustek eta zehapenak diru-laguntzen alorrean. Zehapen edo zigor prozedura.

Gai horri dagokionez, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrean eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduan xedatutakoa beteko da, bai eta Mendaroko Udalak emandako araudia ere.

acreedores, se exigirá el reintegro aplicando el principio de proporcionalidad, a cuyo efecto se considerará reintegrable la subvención en proporción a los gastos impagados.

Artículo 17. Infracciones y sanciones administrativas en materia de subvenciones. Procedimiento sancionador.

En esta materia se estará a lo dispuesto en la Ley General de Subvenciones y el Reglamento de la Ley General de Subvenciones, así como a la normativa dictada por el Ayuntamiento de Mendaro.